


Euskararen Jatorriaren 7. Biltzarra

Etnografiatik euskararen jatorrirantz



Dima, 2012ko maiatzaren 12an

Egitaraua

09:30 Harrera, akreditazioa eta liburuen erakusketa

09:45 Agurra eta aurkezpena

10:00 Felix Zubiaga: Euskal erritoak eta euskara

11:00 Joxemiel Barandiaranen "aitz" erroari buruzko proposamena

11:30 Atsedenaldia

12:00 Julio Caro Baroja eta "Barscunes" txanpon nafarra

12:30 Javier Goitia: Euskeraren lur eta paperetako oinatz galduak

13:30 Antonio Arnaiz: Origen ibero-euskeriko de la sardana

14:00 Bazkaria

16:30 Bisitaldia: Dimako Jentilzubi eta Baltzolako kobak

18:00 Bideo proiektzioa: *Euskararen jatorria: enigma europar bat*

18:15 Mahai ingurua: Euskararen jatorriari buruzko aurreiritziak: Arnaiz, Naberan, Zubiaga

19:10 Beste urtebete bat Arabako Iruñako ostrakak argitzen

19:15 Luis Silgo: Las inscripciones de Iruña-Veleia y la estabilidad de la lengua vasca

20:00 Omenaldia Sarkisian, Kapanaga eta Txillardegiri


20:15: Biltzarraren amaiera

Aurkibidea

1. Aurkezpena	3
2. Felix Zubiaga: Euskal etnografia eta euskara	6
3. Joxemiel Barandiaranen “aitz” erroari buruzko proposamena	18
4. Julio Caro Baroja eta “Barscunes” txanpon nafarra	32
5. Javier Goitia: Euskeraren lur eta paperetako oinatz galduak	39
6. Antonio Arnaiz: El origen ibero-euskeriko de Sardana	46
7. Bideo proiektzioa eta eztabaida: Euskararen jatorria: enigma europar bat	50
8. Arabako Iruña Argitzeko Batzordea: Beste urtebete bat ostrakak argitzen.....	56
9. Luis Silgo: Las inscripciones de Iruña-Veleia y la estabilidad de la lengua vasca	60
10. Omenaldia Sarkisian, Kapanaga eta Txillardegiri.....	71

Jatetxea: Santuru

Igorretik Dimarako bidea hartuta, 2. kilometroa baino lehen, errepidearen ondoan, eskuinaldean



Bisitaldia: Dimatik Otxandiorako errepidea hartuta, 2 kilometro egin ondoren, ezkerrean, Indusi izeneko auzoa ikusiko dugu. Hango ermita ondoan kotxeak itxi eta bertan hasiko dugu ibilalditxoia. *Sanfresku* ermita, *Gibiltar*, *Jentilzubi*, *Axlor*, *Baltzola* eta itzuleran *Zamakola*, *Sanfresku* ermita.

1. Etnografiatik euskararen jatorrirantz

Aurkezpena

Gaur, maiatzaren 12an, Euskararen Jatorriaren 7. Biltzarra ospatzera goaz Dimako herri zoragarri honetan, oraingoan, etnografia ardatz hartuz eta alor honetatik hizkuntzalaritzarako egin diren ekarpenei buruzko gogoeta eginez. Helburua hizkuntzaren historia ahalik eta puntu gehienetik ikustea da, eta horretarako iaz landutako genetikatik aurten ikusiko den etnografiara pasatuko gara, etorkizunean historia eta arkeologia ere lantzeko itxaropena dugularik.

Izan ere, hizkuntzalaritzaren aurkikuntza garrantzitsuenetako batzuk beste arloetako adituek egin dituztela ez dugu ahaztu behar, esaterako Manuel Gomez-Moreno arkeologoak grafia iberiarra irakurtzen deskubritu zuen edo Aquiles Luchaire historialariak Akitaniako hilarrien testuak euskarazkoak zirela.



Irudia: [Koch Arruti, Sigfrido](#)

Eta etnografiaren argazki on bat izateko, nola ez, pasa den azaroan bere heriotzaren 20. urteurrena bete zenez, Joxemiel Barandiaran gogoratu nahi dugu ezinbestean. Izan ere, penagarria izan da horrelako pertsona garrantzitsu baten urteurrenean inork ere ez aipatzea gure historiarako, hizkuntzalaritzarako eta beste hainbat alorretarako hain garrantzitsua izan den eta Joxemielen bizitza osoko lana laburtzen duen bere teoria baieztatuta geratu dela orain 7 urte: euskal populuak hemen daramatzagula 8.500 urte, lurralde honetan. Gainera, berak, epe hori “gutxienez” esan bazuen ere, genetikak momentuz 15.000 urtetara luzatu du iraupen hori.

Joxemielen urteurrenean gai hau inork ere aipatu ez izana harriduraz hartu genuen. Garesen egin genuen aurreko biltzarrean Marian Martinez de Pancorbo, Sergio Cardoso eta Stephen Oppenheimer genetiskek ezin argiago azaldu zutelako eta hedabideetan horren berri zabaldu zelako. Barandiaranen teoria baieztatzeaz gain eta hemen daramagun denbora 8.500 urtetik 15.000 luzatzeaz gain, gauza garrantzitsu bat esan dute genetistek: Mendebaldeko Europa KEAL aterpetik populatu zela, alegia Kantabria, Euskal Herria eta Akitania Lurraldeetatik. Esaterako, britainiarrak genetikoki %70ean hemendik datozela edo irlandarrak %90ean... gauza gehiegi ongi bereganatzeko, antza. Egunen batean kontu guzti hauek eskoletako testu liburuetan agertuko omen dira, baina, zoritxarrez, Joxemielen azaroko urteurrenean azaldu ere ez ziren egin.

Horregatik, 7. biltzar honetan Barandiaranen lanari ohore eginez, hizkuntzalaritza arloan “aitz” erroari buruz esan zuena sakonki aztertuko dugu. Bere ustean, erro hau duten mozteko tresnak paleolito garaikoak izan daitezke, hala nola, *aizkora*, *aitzurra*, *aizturra*,

azkona, aiztoa, zulakaitza... Hau zuzena izan daitekeen ikusteko, proposamen hau 8 alderdietatik aztertuko da: Europako beste 7 hizkuntzatan aizkora izendatzeko hitzak, “aitz” erroarekin lotutako toponimia, “aitz” eta “harri” kontzeptuen arteko loturak, hizkuntzalaritzaren antzekotasunaren printzipioa, hitz familia honek latinean dituen baliokideak, etab.

Ondoren Caro Baroja etnologo, antropologo, historialari eta hizkuntzalariaren zenbait lan ekarriko ditugu gogora. Nahiz eta Caroren iritziz ezin zen iberiera eta euskararen arteko loturarik ezarri, gauza modu irekian ikusteko zuen gaitasuna gogora ekarri nahi dugu. Horretarako argitaratu zituen 30 liburuetakoa batean, *Sobre la lengua vasca y el vasco-iberismoa* gogoratu, senidetasun izendapenei buruz proposatutako etimologiak aztertu eta, amaitzeko, Nafarroan aurkitu ziren “Barscunes” txanponak izango ditugu hizpide, Caro Barojaren eta Joaquin Gorrochateguiaren ikuspuntuak aurrez aurre jarritz.

Etnografiaren gaiarekin jarraituz Felix Zubiaga hizkuntzalariak erritoen atzean dauden izendapen zein kontzeptuei buruz hitz egingo digu. Erritoak, eta horien barruan jaiak adibidez, antzinako gertakizunen oroigarri izaten dira. Horrela, urtero gure oroitzaren astinduz antzinatearekin bat egiten dugu. Etnografian oinarritzko elementuen esanahiari buruz hitz egingo digu Felixek, hala nola, Mari, Miel Otxin, Subilaro, Olentzaro, Trikuarri eta abarrei buruz.



Felixek erritoak hizkuntzaren sorrerarekin bat datozela dio eta, “oroitzaren ariketa honi esker, euskarak gorde ahal izan du gaurdaino bere hitza argi eta esanguratsu”. Erritoaren funtsa argitzeko, izena eta mintzoa bateratu behar dira eta, horregatik, hizkuntza gizakia bere historia kontatzen hasi zenetik hasten dela dio.

Javier Goitia geografo eta ingeniariak epe laburrean argitaratuko duen liburuaren edukia aurreratuko digu. Bere iritziz gaztelerazko ehunka hitzen etimologia argitzeko hurbilen eta argien azaltzen duen hizkuntza euskara da. Horrela, gazteleraz egunero erabili ohi ditugun hainbat hitzen proposamen etimologikoak egingo ditu euskaratik abiatuta.

Arratsaldean Baltzolako koben bisita mitologiko eta historiko bat egiteko aukera izango dugu, arbasoen antzinako bizilekuak hobeto ezagutzeko. Ondoren euskararen jatorriari buruz dauden aurreiritzi nagusiez hitz egingo da eta, horretarako, “Euskararen Jatorria: enigma europar bat” dokumentala oinarri hartuko da, bertan, horietako asko ondo ikusten direlako: orografiari esker salbatu ote zen euskara? latina eta beste hizkuntzak bezainbeste aldatu da? Ez ahal du ahaidetik gure hizkuntzak? moduko galderei balizko erantzunak bilatuz. Horretarako, Arnaiz, Naberan eta Zubiagak jardungo dute hizlari gisa.

Azken hitzaldia nola ez, Euskal Filologiaren historian dagoeneko mugarri bihurtu diren Arabako Iruñako grafiteoi buruz izango da. Valentziako Luis Silgo arkeologo eta

epigrafistak Aldundiko Batzordeko txosten arkeologikoan izan diren hutsuneak azalduko ditu. Ondoren, Hispanian kristautasunak II. mendean bertako hizkuntzetan izan zuen hedadurari buruzko testu garrantzitsu bat aurkeztuko du. Eta gero, izen akitaniarrei dagozkien euskara garaikidearen baliokideak azalduz, Silgok grafitoetako zenbait izen erraz itzultzen ditu Batzordeko hizkuntzalarien mesfidantzak eta ezintasunak gaindituz.



Gai honen garrantzia ulertzeko, Arabako Aldundiak Iruñako ostrakak “lurperatu” nahi izan zituenean, Eliseo Gili eta Idoia Filloyri esan geniena gogoratzea merezi du: “Euskal Filologiaren Pandoraren kutxa zabaldu duzue”. Haien harridura aurpegia ikusita gehiago azaldu behar izan genien: “Euskal Filologiak orain arte agertu diren hainbat gauza zientifikoki “lurperatu” ditu: *Barskunes* txanpona, Andelos-Andiongo esaera iberiarra, “aitz” erroaren potentziala... Hemen grafito gehiegi topatu dituzue baina hala ere gauza bera egiten saiatu dira, Euskal Filologian irakasten dena milimetro bat ere ez aldatzeko. Baina hemen euskarazko ostraka gehiegi topatu dituzue eta gainera, egoera triste honek iraun dezan prest ez gaudenez, agian gai hau argituko dugu, hori bai, seguruenik 5 urte pasatu beharko dira, hemen sakoneko aldaketak behar direlako”. Ea epe horretan beranduenez, datazioekin gaia argitzen dugun.

Eta Biltzarrari amaiera emateko, azken bi urte hauetan joan zaizkigun Sarkisian, Kapanaga eta Txillardegiri omenaldia egingo zaie euskararen jatorriari eta Iruñako grafitoei egindako ekarpenengatik. Sarkisian armeniarrek gure hizkuntzaren eta armenieraren arteko hainbat lotura aztertu zituen eta Euskararen Jatorriaren bi biltzarretan etortzerik ez bazuen ere, ponentzia bana bidali zuen. Bittor Kapanagak hiru iturburuen teoria plazaratu zuen, euskarak beste hizkuntzekin erlazionatzeko eta jatorrian sakontzeko bide berriak zabalduz.

Azkenik, Txillardegik Arabako Iruñako grafitoen egin zuen ikerketak hainbat gauza erakutsi zituen: euskal aditzari buruz itzelezko ezagutza zuela, bere adinean ikertzen jarraitzeko izan zuen adorea eta, azkenik bere izaera irekia, gauzei azterketaren bidez helduz Unibertsitatean zer iritzi zegoen kontuan hartu gabe. Hiru ikerleak izango ditugu gogoan, euskararen jatorriaren gai zirragarri honetan emandako laguntzatik.